

# AMAMA MIREN LORE

Doinua: "Mahai baten inguruau"

1

Urbasa zabalean  
zer ikusi dodan  
dinotsut behingoan:  
gaztanondo lehorra  
loraldi gozoan.  
Lehor zaharra loretan  
ikusitakoan,  
amama Miren Lore  
sartu jat gogoan;  
loreontzi bat dozu  
bere zahartzaroan.

2

Maitasunak baditu  
milaka kolore,  
zein baino zein hobet-  
eta bakotxak dauka  
miloien balore.  
Amama da gurean  
poza ta adore,  
berak zaintzen dau gure  
etxeko umore;  
amama da gurean  
egiz Miren Lore.

3

Gure amama dago  
makal eta zaharra  
- hau esan beharra-  
baina baita bera da  
etxeko izarra.  
Menperatuta dauka  
larogeita hamarra,  
Jaunak jaso deiola  
bizitzako marra;  
Ai, zein zoragarria  
bere irriparra!



4

Gure amama dozu  
loretegi fina  
ta geldi ezina,  
han-hemen zabaltzen dau  
Jesusen usaina.  
Eten barik bizi dau  
maitasun ekina,  
bizi-lore bihurtzen  
bere hondakina;  
horra gure amama  
lore erregina.

5

Hau da hau miraria:  
azalez zimurra  
bihotzez ziurra,  
bizi barri bihurtzen  
dau barruko lurra.  
Amama Miren Lore  
maitale samurra,  
joango ete jakun  
badogu bildurra;  
a zelango hutsuna,  
ta ez da guzurra!!!.

6

Amama Miren Lorek  
danoi lore bana,  
bete dau esana,  
ahal dauana eginez  
emoten dau dana.  
Eta jarrai daigula  
Miren Loren lana,  
eta gaur eskerronez  
goazen beragana:  
"Miren Lore" guztioi  
eskerron laztana.

Aita Martzel